

KOPURUAK ETA KANTITATEAK

Eskolak onartutako Hizkuntz Proiektuan ageri denez gero, ikasleak behar adinako euskara maila erdietsi behar du LHko alor eta ikasgai guzietan.

Horretaz gainera, ikasleak bereganatu beharko ditu ikasgai bakoitzari dagozkion adierazmolde eta hiztegi berezia, esate baterako, matematikako gehi, ken, bider, zati, portzentaiak, zenbatekoak... eta abar.

(3. Hizkuntzaren lanketa gainontzeko ikasgaietan, 47-48 or., *Hizkuntza Proiektua*,)

Zenbakia: objektuak zenbatzearen emaitza edo kantitate baten eta haren unitatetzat hartzen denaren arteko erlazioa.

Ongi bereizi behar dira zenbakiekin lotura duten zenbait hitz eta aditzen esanahiak eta erabilerak.

Hasteko, defini dezagun kantitate hitza. Kantitatea magnitude baten edo gauza-multzo baten zatia da. Zenbatu edo neur daitekeenaren propietate bat da. Mundu fisikoa bi kantitate mota bereizten dira:

1.-Kantitate jarraitua bata bestetik bereizita ez dauden unitatez edo zatiz osatua dago: botila batean dagoen likidoa, gasa...

2.-Kantitate diskretua bata bestetik bereizitako unitatez edo zatiz osatua dago: arbola baten hostoen multzoa, mendi bateko arbolen multzoa...

Kantitate jarraituak neurtu egin daitezke, baina ezin dira zenbatu; kantitate diskretuak, berriz, zenbatu egiten dira, ez dira neurtzen.

Bereizketa horretan dago kopuru eta kantitate bereizketaren giltza, kantitate diskretuekin **kopuru** erabiltzen baita eta jarraituekin, berriz, **kantitate**.

Hortaz, **ardo-kantitatea** EZ *ardo-kopurua; **argi-kantitatea** EZ *argi-kopurua; **ur-kantitatea** EZ *ur-kopurua; **oxigeno-kantitatea** EZ *oxigeno-kopurua.

Alabaina, *ikasle kopurua, aulki kopurua, liburu kopurua, zuhaitz kopurua...*

Kopuruaren osagaiei zenbakia jartzeari *zenbakitzea* edo *numeratzea* esaten zaio.

Zenbakiak banaka harturik *digitu* edo *zifra* ere deitzen zaie.

9630 zenbakiak 4 digitu edo zifra ditu

Zenbakiak, oro har, sinboloz idazten dira matematikan, baita zientzia-gaiei buruzko testuetan ere.

Igogailuari eusten dion kablearen tentsioak 5.000 N balio du.

Gai orokorreari buruzko testuetan, berriz, zenbaki txikiak (ehunetik beherakoak) sinboloz zein letraz eman ohi dira, baina zenbaki handiak (ehunetik gorakoak bereziki) zifraz.

Kalkulua 8 orduko 25 lan-egun kontuan izanik egin da.

Kalkulua zortzi orduko hogeita bost lan-egun kontuan izanik egin da.

Urtean 8.500 tona tratatzeko gaitasuna du.

Euskara Batzordea